


LUIS VILLASANTE

# *Historia de la literatura vasca*

(487 orrialde)



VILLASANTE, L., 1979<sup>2</sup>, *Historia de la literatura vasca*, Arantzazu Argitaletxea. (1.ed., Bilbo: Sendoa, 1961).

## **Luis Villasante Kortabitarte**

(1920-2000) Gernikako Errenterian jaio eta Arantzazuko Santutegian hil zen frantziskotar hau.

Ia bitzita osoa Arantzazun eman zuen, Teologiako Irakasle-jardunean, baita Euskaltzainburu izan zenean ere (1970-1988).

Gerraondoko lehen berrikuntza handian, lehenengo euskaltzainetakoa izan zen (1951).

Euskara eta Teologia izan ziren Villasanteren bi alor maiteak.

Laster, Villasanteren idazlanak, ikerlanak ez eze kazetaritza lanak ere, digitalizatuta izango ditugu Euskaltzaindikoko atarian.

***Gramatika-lan estimagarrien artean, Villasantek euskararen egoera sozialari ere begiratu zion, Euskaltzaindia gidatu eta garaiko arazoak aztertzean (Euskararen auziaz, 1988).***

***Euskal literaturaren historia hau balio handi eta orokorrekoa izan da azken hamarkadetan euskara idatziaren iragana zein inguru sozialetan jaio eta garatu den jakiteko.***

Euskara idatziaren lehenengo historia zabala eta zehatza da hau: alde kritiko-literarioak baino gehiago euskal idazkuntzaren ekoizpenaren albisteak biltzen ditu.

Mende bakoitzean, Iparraldeko eta Hegoaldeko euskal idazleak bi taldetan banatuta aurkezten dizkigu, horrela geografia ez ezik euskalkien tradizio literario ezberdinak ere azpimarratuz.

Ordena kronologikoaren harian ematen du guztiaren berri, idazlez idazle, idazkiz idazki, gertakariz gertakari. Inprimatuta argitara emandako liburuez gainera, autore bakoitzaren eskuizkribu argitaragabe ezagunak ere aipatu ohi ditu.

Gehienetan, aski zehazki adierazten du idazlan bakoitzaren edukia, eta saiatzeko da guztia bere itzulunguru sozialean lekutzen.

Albiste zehatz eta aberatsez egina dago liburua, eta kasu bakoitzean erabilitako bibliografia adierazi egiten du. Baina kontuan eduki behar dira bi argitaraldietako datek ezartzen dituzten mugak (1961, 1979).

Azkenik, gogoan har bedi bigarren edizioak eranskin osagarria duela (417-444 orrialdeak). Liburuaren erabilgarritasuna lau aurkibideren bidez bideraturik dago: hasieran dagoen orokorra, eta atzean izenena, leku-izenena eta gaiena.

Erabilitako iturri eta bibliografiagatik, euskara idatziaren historia ezagutzeko liburu bazterrezina da Villasanteren hau, nahiz eta mende Erdiko bizialdia bete duen.

Hori horrela, hizkuntza idatziaren alde literario ederra hobeki ezagutzeko beste zenbait Historiez baliatu behar da, ordea (Orixe, Mitxelena, Sarasola, Onaindia, Lasagabaster, Otegi, Urkizu, Juaristi, Bidador, etab.). Begira "Literatura" gako-hitza.